



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2009-12-10**

VIIURTEA 1.848.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

SAIOA IRAOLA ETA EIDER ELDUAIEN LEITZALDEKO ETA TOLOSALDEKO BILGUNE FEMINISTAKO KIDEAK

«Identitateen gaiaren garrantzia geureganatzea da topaketen xedea»

TOLOSA Etzi, larunbata, Leidorren Emakume Abertzale eta Feministen IV. Topaketak egingo dituzte

EGITARAU Egun osoan zehar mahai-inguruak eta eztabaidak izango dira; izen-ematea zabalik da oraindik 2-3



E. EZEIZA



Marian Lazkano eta Ainhoa Larrea, atzo, aurkezpenean. E. MAIZ

Intxaur frontoiaren inaugurazioa, Kirol Asteko ekitaldi nagusia izango da

ZIZURKIL Gaur hasiko da eta igandera arte luzatuko da; inaugurazioa, igandean egingo dute 4



EGUZKILORE®
osagarriak



www.eguzkilorejoya.com



DONOSTIA: Hernani, 13 - BILBO - GASTEIZ - Zuluaga Biberlegiak: Galdakao eta Zornotza

E | **Elkarrizketa****EIDER ELDUAIEN ETA SAIOA IRAOLA** Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilgune Feministako kideak

«Benetan identitateen gaiaren garrantzia geureganatzea da topaketen xedea»



ESTI EZEIZA

Tolosa » Identitatearen gaia ardatz hartuta, Emakume Abertzale eta Feministen IV. Topaketak egingo dituzte etzi, egun osoan zehar.

ESTI EZEIZA

Etzi, Emakume Abertzale eta Feministen IV. Topaketak egingo dituzte Tolosan. Hausnarketarako gune izango da hau, eta aurtengoa, identitatearen gaia izango da ardatza. *Biluztuz jantzi. Identitate feministak sortuz, Euskal Herria aldatu* lelopean, egun guztian zehar izango dira ekitaldiak. Bertan parte hartzeko, izen-ematea egunean bertan edo alde aurretik egin daiteke, internetez eta telefonoz.

Topaketa hauen helburua zein da?

Eider Elduaie: Bilgune Feministaren helburua Euskal Herri feministak bat eraikitzea da; helburu horrekin jaio ginen 2002an, dagoneko zazpi urte igaro dira eta uste dugu une egokia dela geldidune bat

egin eta geure barrenei, tripei erreparatzea, geure ideologiari buruz hausnartzeko. Euskal Herri feminista bat eraikitze bidean zer nolako praktika izan behar dugun egunerokoan aztertu nahi dugu. Praktika hori garatzeko zer nolako subjektuak behar ditugun eta era berean, subjektu horiek zer nolako ereduak, identitateak behar dituzten.

Aurten aukeratutako gaia, identitatea da. Zergatik?

Saioa Iraola: Identitatearen gaia lantzeko hartu dugun erabakian hainbat faktorek eragin dute. Batek, egun mugimendu feministan orokortua dagoen gai bat izanik Bilgune Feministatik eztabaida horren baitan gure ikuspegia eta posizioa txertatzeko beharra

dugu. Bestetik, historikoki mugimendu feministaren eztabaida nagusietako bat izan da, mugimendua antolatu, batu eta banatu duena, testuinguru honetan, gure ekarpena ezinbestekoa dela deritzogu. Gainera, Euskal Herri feminista bat lortzeko bidean, gure praktika feminista zehazteko eraldaketa ekarriko duten subjektu politikoetaz hitz egin behar dugu; horretarako, egun, instituzioetatik bideratzen dituzten politikak aztertu eta horiei aurre egiteko, praktika feministak definitzeraz joko dugu.

Emakumeen identitatearen hiru bereizgarriak uste duzue dutela eragina, nazio-kultura, sexua eta klasea. Era laburrean esanda, zertan eragiten du bakoitzak?

S.I.: Identitatearen eraikuntza subjektibotasunetik sortzen denaren ideia zabaldua dagoen honetan, gure ikuspuntu hau irauli eta identitateak kolektiboan sortzen ditugula argi utzi nahi dugu. Horrez gain, emakumeen identitateak soilik ez dituela sexuak sortzen, eta identitate feministak identitateen arteko harremanen eraginez sortzen direla diogu; identitateen afera zapalkuntza hirukoitzaren baitan kokatuz. Horrela, euskal emakumeen identitateen oinarrian nazio zapalkuntzak, klase zapalkuntzak eta sexu zapalkuntzak gure identitate indibidualak zein kolektiboak guztiz baldintzatzen dituela pentsatzen dugu. Beraz, identitateak subjektu politikoaren oinarri direla uste dugu, eta erai-

kuntza hau identitate ezberdinen arteko harremanen eraginez sortzen dela pentsatzen dugu.

E.E.: Azken urte hauetan sexu identitateen gaineko eztabaida nagusitu da Euskal Herriko mugimendu feministan. Guk eztabaida horri dimentsio zabalagoa eman nahiko genioke eta testuinguru batean kokatu; Euskal Herri eta emakume langileongan. Emakume euskaldun eta langile bezala nola sentitzen garen eta nola jardun behar dugun aztertu nahi dugu.

Euskal Herriko eraldaketa gauzatzeko garaian, zein paper jokatu behar du emakumeak? Nola eragin dezake?

S.I.: Eraldaketa prozesuan emakumeek subjektu politikoak izan behar dugu, praktika oinarri izango dugun subjektu aktiboak. Baina horretarako, ezinbestekoa dugu erreferente identitario feministak identifikatzea eta norabide horretan gure praktika feminista zehaztea. Egund, instituzioetatik bideratutako politikak praktika feminista alboratzen dute, azaleko neurri antzuen izenean, sustraietatik eraldatu beharreko sistemaren beraz, politikak hauek ere aztertuko ditugu, hauen aurrean hartu beharreko neurri eta jarrerak kolektiboki zehazteko.

E.E.: 2005ean Bilbon egin genituen azken topaketetan Euskal Herria bake prozesu baten atarian izan beharreko papera definitzen

aritu ginen. Egund, erantzun horri dimentsio zabalago bat eman nahi diogu. Euskal Herriko emakumeok hiru motako zapalkuntza bizi dugula uste dugu: kulturala edo nazionala, klase zapalkuntza eta sexu zapalkuntza. Guztiei buelta emango dien borroka garatu nahi dugu eta hori definituko dugu topaketa hauetan.

Zein da zuen ustetan, egun, instituzioek bideratzen duten politika, emakumeen identitatearen inguruan?

S.I.: Instituzioetatik bideratutako politikak genero ikuspegia dute oinarri, ikuspegi feministarik ez dute. Horretarako, analisi feministaren beharra azpimarratu nahi dugu. Praktika feministak oinarri izango dituen analisiak egin behar ditugu, benetan praktika hauetatik sortuko baitugu emakumeek subjektu politikoetan bilakatzea.

E.E.: Finean, sistema patriarkalaren tresna nagusietako bat dira instituzioak, eta ustezko berdintasun batean bizi garelako defendatzen dute bertatik.

Duela zortzi urte egin zen Emakume Abertzaleen I. Topaketa. Ordutik, gauzak aldatu al dira? Eta horrela bada, zein noranzkotan?

E.E.: Nik nabarmenduko nuke belaunaldi aldatzea egund. Egund, Bilgune Feminista edo mugimendu feminista gauden asko orduan ez geunden oraindik. «Berdintasun formal» batean jaiotako belaunaldia da gurea eta askotan zaila egiten da belaunaldi gazteei emakumeon zapalkuntzaz ohartaraztea, kontrakoak sinistara zi digutelako. Ildo horretan ez da makala aurrean dugun erronka eta aurrez aipatu bezala, instituzioek ez dute laguntzen. Baina era berean belaunaldi aldatzea egund, borroka feminista bizirik dagoenaren seinale ere bada; seinale ona, zalantzarik gabe.

Topaketa hauetan diozue, historian izan duena baino dimentsio zabalagoa eman nahi diozuela identitatearen eztabaidari. Nola?

S.I.: Historian zehar izan duen dimentsioa baino, azkenaldian hartu duen dimentsio zabaldu nahi dugu. 80. hamarkadan, jada zapalkuntza hirukoitzaren identifikazioa eman zen, baina mugimendu feministaren ibilbidean, dimentsioak hauek ere aztertuko ditugu, hauen aurrean hartu beharreko neurri eta jarrerak kolektiboki zehazteko.

E.E.: 2005ean Bilbon egin genituen azken topaketetan Euskal Herria bake prozesu baten atarian izan beharreko papera definitzen

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Kaiolak.** Egoera oso onean dauden txerrientzako bi kaiola saltzen dira. Harremanetarako telefono zenbakia: 671 50 67 14.

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako kafetegiko inkeidegi batean pertsona bat

behar da arratsaldetan lan egiteko. 25 urtetik gorakoa izatea eskatzen dugu. Deitu 661 46 31 93ra.

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak, eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe telefono zenbaki hauetara: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

» **EMAKUME ABERTZALEEN TOPAKETA FEMINISTAK**

Egitaraua

- **09:00.** Izen-ematea.
- **09:45-11:30.** Mahai-inguru nagusia: Nortasun feminista Zer da eta nola sortzen da identitate feminista?
- **11:30-12:00.** Atsedendaldia.
- **12:00-14:00.** Hiru mahai-inguru. 1. Euskal Herriko mugimendu feministak. Identitatea landu duten diskurtso eta praktikak. 2. Identitate feministarik gabe ba al dago Euskal Herria aldatzerik? 3. Sexu identitateak. Eztabaida berria.
- **14:00-16:00.** Bazkaria.
- **16:00-16:30.** Ideia nagusien aurkezpena.
- **16:30-18:30.** Mahai-inguru nagusia: Genero politikak vs. analisi

feministak: Euskal Herriko emakumeen egoerari begiratzeko bi modu.

■ **18:30.** Amaiera ekitaldia.

Zenbait datu

- **Ohar teknikoak.** Haurtzaindegi zerbitzua egongo da eta itzulpen-gintzakoa ere bai.
- **Izen-ematea egiteko modua.** www.bilgunetopaketak.mundua.com helbidean egin daiteke. Prezioa 15 eurokoa da (langabetuentzat 8koa). Ordainketa kontu korronte honetan egin daiteke: 3035 0134 46 1340042190. Harremanetarako telefono zenbakia: 609-92 13 73 (16:00etatik 20:30era). Topaketen helbide elektronikoa: ehbf@bilgunefeminista.org.

ruak ugari izango dira. Bertan agertzen diren iritzi eta ideiekin zer egingo da gero? Hausnarketa eta eztabaida hauetatik ateratzen den informazioarekin zer egingo da?

E. E.: Larunbatean bertan ondorio berri emango da amaieran, eta parte hartuko duten hizlarien planteamenduak ere herritarren eskura jarriko dira. Hala ere, eta aurrez esan bezala, identitateen gaineko eztabaida berria da Bilgune Feministarentzat. Hortaz, topaketa hauek abiapuntua baino ez dira izango. Jantzeria goaz, entzuzter, ikastera, ondoren gure ekarpena egin ahal izateko. Beraz, ez da larunbatekoarekin amaituko. Eztabaida honen gainean bere ibilbidea egingo du Bilgune Feministak eta horren berri izango du euskal jendarteak.

Egun, zein egoeratan dago Euskal Herrian, mugimendu feminista?

E.E.: Euskal Herriko mugimendu feminista anitza da. Oso zatikatua egon den urteak izan dira eta azken denboran batzeko ahaleginak egiten ari dira, horren lekuko, joan den urtean Portugalen egindako Euskal Herriko Topaketa Feministak. Oso balorazio baikorra egin zen eta indar metaketa bat ere izan zen. Aurrez aipaturiko faktorea ere kontuan izan behar da: belaualdi aldaketa. Gazteak ari dira lekukoa hartzen. Jauzi horretan kokatuko nuke mugimendu feminista egun Euskal Herrian.

Lehendabiziko mahai-inguruan Nortasun feministaz mintzatuko zarete. Zer da hau?

S.I.: Ikuspegi feminista batetik, guk identifikatzen ditugun identitateen; sexua, klasea eta nazioa-kultura arteko artikulazioaren eraginez sortutako nortasunez ariko gara. Horretarako, diskurtso eta praktika feministetaz ariko gara. Azken batean, norbanako ororen nortasun feminista faktore ezberdinen arteko harremana dela azalduz, eztabaidatuz, aztertuz...

Topaketa irekialdi da, baina bereziki nori zuzenduta daudela esan-garri zenukete?

S.I.: Bai, topaketa hauek irekiak dira, beraz, emakume oro da garrantzitsu lanketa honetan. Topaketa hauek hausnartzeko, eztabaidatzeko marko bat diren heinean, ekarpen ezberdinek ere gure diskurtsoa zein irakurketa aberaste-ko balio dute. Topaketa hauen oinarri ez da hainbeste praktika edota ekintza zuzenak aztertzea, baizik eta "jasotzeko" topaketak izango dira. Gaian jantzi eta benetan identitateen gaiaren garrantzia geureganatzea izango da xedeetako bat. Gaian interesa duen emakume oro izango da ongi etorria.

E.E.: Nik emakume gazteei bertan parte hartzeko dei berezia egingo nieke. Aurrez esan bezala, *berdintasun formal* batean jaiotako belaunaldia da gurea eta askok ez dute emakume bezala ditugun eskubideen alde borrokatzeko beharra ikusten. Egoerak ordea, berdintasunetik oso hurrin gaudela erakusten digu. Eta horretaz jabetu eta hori iraultzeko beharra somatzeko gune egokia izango dela larunbatekoa, uste dut. Kontzientiazio lan handia dago egiteko emakumeon artean.

Larunbateko hitzorduari begira oharrik bai?

E.E.: Aipatu Leidor zinemaizango dela gune nagusia. Bertan hasiko dira Topaketak goizeko 9etan. Bazkaria ere izango da Abastosen, arratsaldean berriz ere bilduko gara Leidorren, eta ondoren kalejira eta ekitaldi batekin emango diogu amaiera egunari. Baina festarako aukera ere izango da, Ibarrako gaztetxean antolatu dugu eta gaueko 22:00k aldera hasiko da. Topaketetan parte hartu nahi duenak komeni da aurrez izen ematea eta horretarako informazio guztia www.bilgunetopaketak.mundua.com-en topatuko duzue. Haurtzaindegi eta itzulpen-gintza zerbitzua izango da. Tolosa erdigunean (Amaroz) eta hegoaldeko (Benta Haundi) sarreretatik sartzea komeni da. Autobusentzat aparkalekua Usabal kiroldegian egongo da eta autoentzat San Esteban auzoan. Markatuta egongo da.

12. urteurrena ospatzeko ekitaldi festa Bonberenean

Kultura » Asteburu honetan, antzerkia, kontzertuak eta zineaz gozatzeko aukera izango da.



11. urteurrenean Bonberenea txaranga eta Mulambo kalera irten ziren. E.E.

ERREDAKZIOA

Bonbereneak 12 urte betetzen ditu, eta hori dela eta, ekitaldi sorta-paroa antolatu dute urtarrilaren 16ra bitarte *12 urte! Dozena arrautz* lelopean. Kontzertuak, zinema, antzerkiak edota afariak osatuko dute egitaraua.

Asteburu honetarako antolatutako ekitaldiei dagokionez, bihar antzerkia izango da ikusgai, 20:30etik aurrera Bonberenean. Hain zuzen ere, Pollorosaprodukzioen eskutik *La Creacion* lana taularatu dute.

Etzi, berriz, musikaren txanda izango da. Bi talde ariko dira, Estricalla eta Freed Kennedys. 22:30ean hasiko dira kontzertuak. Azkenik, iganderako zine saioa

antolatu dute. *Soy Leyenda* filma ikusi ahaliko dute Bonberenean gerturatzen direnek, 19:00etatik aurrera.

Asteburu honetaz gain, urtarrilaren 16ra bitarte beste hainbat ge-

ratzen dira oraindik urteurrena ospatzeko. Hilaren 14ean urteurren bazkaria izango dute, eta 23an Okupazio eguna afari eta su artifizialekin. Urtarrilaren 8an, berriz, Gariren kontzertua izango da.

Euskarazko Zine Zikloan 9 film ikusteko aukera izango da abenduan

Zinema » Gaztetxoentzako 8 film eta helduentzako bat emango dituzte; banaka 3 euro ordaindu beharko da, eta bonua, berriz, 5 euro.



Checkpoint Rock. G. GARAIALDE

ERREDAKZIOA

Tolosako Kultura Batzordeak, Euskadiko Filmategia eta Eusko Jaurrlaritzaren laguntzarekin, Euskarazko Zine Zikloa antolatu du abenduan Leidor aretoan. Gaztetxoei zuzendutako zortzi film, eta helduei zuzendutako bat, *Checkpoint Rock*, izango dira ikusgai.

Film bakoitza ikusteko 3 euro ordaindu beharko da, baina bonua erosteko aukera ere jarri dute. Hau eskuratuta, 5 euroren truke ikusi

ahaliko dira film guztiak. Bonuak Leidorreko leihatilan erosi ahaliko dira filmeen saioen aurretik, ohiko ordutegian, agortzen diren arte.

» **EGITARAUA**

- **Abenduak 13.** *Supertramps*, 17:00etan.
- **Abenduak 19.** *Basoko Izpirituak*, 17:00etan.
- **Abenduak 20.** *Piccolo eta Saxo*, 17:00etan.
- **Abenduak 26.** *Txori Urdin*, 17:00etan.
- **Abenduak 27.** *Ahatetxo itsusia eta ni*, 17:00etan.

- **Abenduak 28.** *Doraemon eta dinosaurio txikia*, 17:00etan.
- **Abenduak 29.** *Pluk eta bere garabia*, 17:00etan.
- **Abenduak 30.** *Prop eta Berta*, 17:00etan.
- **Abenduak 30.** *Checkpoint Rock*, 19:15ean eta 21:45ean, Zine Forumaren baitan.

Laburrak

Jai Batzordearen bilera, gaur, Kultur Etxean

GIZARTEA » Jai Batzordearen bilera egingo dute gaur. Kultur Etxean izango da, 19:30etik aurrera, eta herritar guztiak animatu dituzte bertan parte hartzera.

Herria Abian plataformak bilera egingo du gaur

GIZARTEA » Herria Abian aldaketa soziala bultzatzeko plataformak deituta bilera egingo dute gaur, 19:00etan, LABen Tolosako egoitzan.

Atsedena taldearekin Olaberriako kart-etara

AISIA » Atsedena aisialdi taldeak irteera antolatu du larunbat honetarako, hilaren 12rako, Olaberriako kart-etara. 12-16 urte bitartekoei zuzenduriko irteera da, eta izena eman nahi dutenek 635 74 64 47 zenbakira deitu beharko dute.

Elkarretaratzea gaur Triangulon, LABek deituta

GIZARTEA » Pasa den ostegunean Haur Eskolak Partzuergoko hezitzaile batek istripua izan zuen lanerako bidean. LABek elkarretaratzea deitu du gaur 18:30ean Triangulon, elkartasuna adierazi eta aldarrikapena egiteko, «langileok lanerako joan etorrietan segurtasuna eta bizi arriskuan ez jartzeko eskubideen inguruan».

Kirol Astearen barruan Intxaurren frontoi berria inauguratuko dute

Zizurkil » Gaur hasi eta igandea bitarte ikus-entzunezkoak, XIII. Gau krosa, kart autoak, jokoak, partidak... izango dira.

ENERITZ MAIZ

Gaur hasiko dute Kirol Astea Zizurkil eta igandera bitarte luza-tuko da. Maria Angeles Lazkano alkateak eta Ainhoa Larrea kirol teknikariak aurkeztu zituzten lau egunetan izango diren ekintza ezberdinak. Horien artean, ekintza nagusi moduan, Intxaurren frontoien berritze lanen inaugurazioa izango dute.

Lehena eta Kirol Asteari hasiera emateko, 19:30ean Atxulondo kultur etxean, *Ipar gazi, hego geza* ikus-entzunezkoak izango da. 2 bizikleta, 2 hilabete, 2000 kilometro 2 ume... Ikus-entzunezko honetan, familia giroan bizi bidaiatzeko esperientzia hurbiletik erakutsiko dute. «Familia begogonda. Bikote gazte bat da beraien 2 eta urtebeteko haurrekin. Beraiek haurrekin ere bidaiatu daitekeela erakutsi nahi dute eta bizikleta garraibide arrunt bezala ikusten dute», azaldu du kirol teknikariak. Rhin, Danubio, Isar, Elbe edo iparraldeko Itsasoa bezalako gune naturalak eta Strasbourg, Basel Munich, Linz, Viena, Hamburgo edota Amsterdam bezalako hiriak zeharkatzen ditu.

Herriko kirolariei omenaldia

Ostiralean, Alberto Zerainek *Kachenjunga* ikus-entzunezkoak eskainiko du. 19:30ean Atxulondon. Honen ostean, Zizurkilgo kirolariei omenaldia egingo diete. «Omenaldi xume bat izaten da eta bai Udaletik eta baita kirol batzordetik ere, helburua, urtean zehar kirolean ibili eta lorpenak dituzten



Intxaurre frontoia itxura berria du, atzo oraindik lanean ari ziren langileak. E.MAIZ

herritarrei omenaldi bat egitea da», gaineratu du Ainhoa Larreak. Diploma bana jasoko dute eta ondoren guztiak afaltzera joango dira.

Aurteko kirolari omenduen artean hauek aurkitzen dira: Maitane Aburuza pilotaria, Nerea Amilibia mendi maratoilaria, Iker Hernandez, Jon eta Igor Sasiain, Teddy Martinez, Francisco Gonzalez, Mikel Quintana, Iñaki Zu-

belzu, Alain Moleda, Angel Martin eta Ekaitz Kortajarena halterofiliakoak, Modesta Iraola ehiztaria, atletismoan, Tamara Lozano eta Joxean Alberdi eta Joseba Otaegi aizkolaria.

Hamabi orduz kirolean

Larunbatean, *Hamabi orduz kirolean Zizurkil* eguna izango dute. Eguna 10:30ean hasiko dute eta 12:30ak bitarte haurrentzat kirol

eta jokoak izango dira Intxaurren frontoian. «Sei eta hamabi urte arteko haurrei zuzendua dago. Euskal jokoak eta soka eta baloiaren inguruak izango dira. Eta herrian halterofiliako tradizioa dagoenez, gaztetxoak erakartzeko asmoz, halterofiliako teknikak ere erakutsiko zaizkie», azaldu du Ainhoa Larreak. Bertan parte hartzen duten haurrek hamaiketako izango dute eta opariak ere banatuko zaizkie. Gaztetxo zuzenduta baita, 17:00etatik 19:00etara, Otaño ikastetxeko frontoian Kart autoak egongo dira eta eguna bukatzeko 22:30ean Zizurkilgo XIII. Gau krosa izango da. Gaukrosean parte hartu nahi izanez gero www.herrikrossa.com helbidean eman daiteke doan eta bestela, egunean bertan 21:30etik aurrera 5 euroren truke. Sari ezberdinak egongo dira banatzeko.

Kirol Astearekin bukatzeko, Intxaurren frontoien berritze lanen inaugurazioa izango da. Horretan

» KIROL ASTEA

Gaur

■ **Ipar gazi, hego geza.** 2 bizikleta, 2 hilabete, 2000km, 2 umeekin... 19:30ean Atxulondo kultur etxean.

Bihar

■ **Kachenjunga.** Alberto Zerainek eskainiko duen ikus-entzunezkoak izango da 19:30ean Atxulondo kultur etxean.
■ **Ondoren.** Herriko kirolariei omenaldia.

Abenduak 12, larunbata

■ Hamabi orduz kirolean.

10:30etik 12:30era haurrentzat kirol eta jokoak Intxaurren frontoian. Ondoren, hamaiketako eta opari banaketa.

■ **Kart Autoak.** Otaño ikastetxeko frontoian haurrentzat 17:00etatik 19:00etara.

■ **XIII. Gau Krosa.** Helduek 7,5 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, gazteek 2,5 kilometro eta 1997. urtetik aurrera jaiotako haurrek, kilometro bat.

Abenduak 13, igandea

■ Intxaurre frontoien inaugurazioa.

11:30etik aurrera, Labaka-Garin, Erasun-Arregi haurren partiduak, Saralegi-Oteiza, Beloso-Argeteren arteko eskuzko partiduak eta erremontean, Matxin III-Aizpurua II, Etxeberria IV-Agirrezabalaren aurka.

rako 11:30etik aurrera partida ezberdinak antolatuta dituzte. Haurren partidetan sortu berri den Ziotza pilota eskolako pilotariak ariko dira. Peru Labaka eta Mikel Garin bikotea, Jon Erasun eta Jonkin Arregiren aurka lehiatuko dira. «Aurretik pilota eskolako gaztetxoak arituko dira eta jarraian pilota eskolaren aragzki ofiziala aterako da», argitu du Larrea teknikariak. Hauen ostean, eskuz, Saralegi-Oteiza, Beloso-Argeteren aurkakoak izango da eta bukatzeko, erremontean Matxin III eta Aizpurua II, Etxeberria IV-Agirrezabalaren aurka ariko dira.

IGANDERAKO FRONTOIKO LANAK BUKATUTA

Zizurkilgoian aurkitzen den Intxaurren frontoia aspalditik zituen hezetan arazoak. Zapaterok atera zuen lehen diru laguntza baliatuz, frontoi osoa berregituratu dute.

Teilatua guztiz berria du. Argiak, sarea eta baita ahulki zuri, gorri eta berdeak ere berri-berriak izango ditu. Alboetatik frontoia irekia zen eta orain kristalez itxiak izango ditu. Hasiera batean, lurra aldatzeko asmorik ez bazuten ere, lanen ostean, lurra ere aldatu egin behar izan dute. Azken batean, frontoi guztiari berritu on bat eman diete.

Obrak maiztean hasi ziren eta urrian bukatzea espero zuten arren, uste baino gehiago luzatu zaizkie egin beharreko lanak. Atzo oraindik, langileak azken ukituak egiten ari ziren. Guztiz bukatu ez badituzte ere iganderako guztia bukatuta egotea espero da.



HITZAK bi sarrera pare ditu

Aitarene bidean

antzerki saiorako

Abenduak 11
Ostirala • 20:30ean
Tolosako TOPiCen



HITZAK sarrera bat du

Euskal Herriko
Bertsolari Txapelketaren
FINALERAKO




Abenduak 13 • Igandea
BEC-en

HITZAK sarrera pare bat du

Tolosako Orfeoa

Gabonetako kontzertua

Abenduak 23
Asteazkena • 20:30ean
Leidor aretoan



KALITATE TURISTIKOAREN -A

«Jatetxea profesionalizatzeko balio izan digu, batez ere, ziurtagiriak»

Euskadin jada 267 dira Turismo Kalitatearen Q-a duten establezimenduak. Zerbitzua, azpiegiturak eta kudeaketa egokia ziurtatzen du egiaztagiriak. Horren adibide da Astigarragako Yalde jatetxea. Iñigo Olaziregi eta Rocio Mayoral dira bertako arduradunak; Kalitatearen ziurtagiria lortzeko atzetik «lan handia» egin behar den arren, gerora merezi duela eta ondorioak zuzenean nabaritzen direla azaltzen du Rocio Mayoralak, «batez ere, antolaketari begira».

Zeintzuk izan dira turismoarekin loturiko kalitatezko sistema eta programak aukeratzeko arrazoi nagusiak?

Gurea jatetxe txiki bat da, pen-tsa, bi gara nagusiak eta bi langile ditugu. Dena den, txikia izan arren, gehiago profesionalizatzeko beharra edo ikusten genuen, eta horretarako aukera ematen du kalitate turistikoaren ziurtagiria izateak. Izan ere, ziurtagiri hori izateak izen bat ematen dio jatetxeari, ziurtagiri hori izan dezakeela edo merezi duela esan nahi du.

Ze onura izan du turismo bulegoarentzat Turismo Kalitatearen Q-a lortzeak?

Guretzat onura nagusia antolaketarena izan da. Aipatu bezala, bi nagusi eta bi langile gara jatetxean, eta agian lanaren antolaketan hutsuneak zeuden, edo hobekuntzak egin zitezkeen, eta horretan, batez ere, asko lagundu digu. Orain, ardurak ederki banatuta ditugula somatzen dugu, eta horrela askoz hobeto funtzionatzen dugu.

Jatetxearen baitan ze ondorio izan dituzue ziurtagiria izatearekin?

Ondorio zuzenena biltegiarekin izan dugu, erabat aldatu baitugu. Hor ere behar bat ikusten genuen, eta kalitatearen ziurtagiria baliatu dugu biltegia berregituratzeko. Aldaketa onerako izan da, noski.

Bezeroari eskaintako zerbitzuari dagokionean hobekuntzak izan al dira?

Ez nuke esango guk bereziki zer baitetan hobekuntza nabaritu dugunik edo bezeroek nabaritu ahal izan dutenik. Izan



ere, ziurtagiriarekin aldaketa orokorra izan da, eta ez puntu edo arlo zehatz batean. Esaterako, funtzionamenduan hobetu badugu, hori era batera edo bestera nabaritu da eskaintzen dugun zerbitzuan. Eta guztia hobeto antolatuta egoteak ere ondorio zuzena izaten du zerbitzuan. Beraz, ondorioa zuzenean nabaritzen

dela esango nuke, baina orokorrean hartuta.

Ziurtagiria lortzeko bidean egin dituzuen urratsetan zer nabarmenduko zenuke?

APPCCa azpimarratuko nuke. Hori puntu kritikoen analisia da, eta galkorrak diren produktuen analisirako da baliagarria. Guretzat oso garrantzitsua eta erabilgarria izan da.

Gure produktuak egunero kontrolatzeko bidea dugu orain, eta uneoro dugu euren kalitatearen berri. Hau guztia kalitatearen ziurtagiriarekin egiten den zerbaít da.

Turismoan lanean ari direnei nola azalduko zenieke Kalitatearen Q-ak duen garrantzia?

Nik zalantzarik gabe animatuko nituzke kalitate turistiko-

ren ziurtagiria izateko bidean jartzera. Batez ere enpresa txiki eta ertainetan ikusten dut behar hori, gure kasuan bezala jatetxea profesionalizatzeko bidea izan baitaiteke. Gurea bezalako jatetxe txikiek antzinako erara funtzionatzen jarraitzen dugu, eta modu honetara enpresa bat bezala lan egitera pasatzeko aukera

«Onura nagusia antolaketan izan dugu; ardurak hobeto banatuago daude»

dago. Jatetxei dagokionean horrela dela uste dut, baina gainerako lantegietan ere horrela dela esango nuke, hau da, guztiei etortzen zaiela ondo. Hori bai, lan handia egin beharra dago aurretik, baina, gerora merezi duen lana.

Etenik ez duen lana da hau. Aurrera begira bereziki zein aldaketa egingo dituzue?

Orain denbora gehiagoz jatetxea ixtea ari gara pentsatzen. Udan oso ondo funtzionatzen dugu, baina negua oso luze joaten da, eta batez ere sagardotegi garaia da guretzat apalena. Tarte hori beste gauza batzuetara zuzentzea ari gara pentsatzen, baina, beti ere gure negozioan hobekuntza izan daitezkeen alorretan. Hala, esaterako, gure jatetxearen lorategia zainduko dugu itxita dagoen egunetan. Lorategiak garrantzi handia du guretzat eta bezeroentzat, eta hori zaintzea negoziarioa zaintzea ere izango da, bezeroek eskertuko baitute.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK

Kalitatearekiko konpromisoa eta sentsibilitatea, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionali zuzendutakoa.

KALITATE TURISTIKOAREN Q-A

Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenen betekizunen bermea.

E.FQM BIKAINTRASUN EREDUA

Erakundeek kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI
KALITATE TURISTIKOAREN
Q-A
ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

946077586
944047470

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

Lehenengo aldiz kultur asteburua antolatu du Intxur auzo elkarteak

Aldaba » Bihar, etzi eta igandean egingo dituzte ekitaldiak, tartean Xabier Peñalberren hitzaldia Intxur kastroari buruz.

ERREDAKZIOA

Aldabako Intxur auzo elkarteak lehenengo kultur asteburua antolatu du. Ekitaldiak bihar hasiko dira eta larunbatean eta igandean jarraituko dute. Elkartetik azaltzen dutenez, hainbat ekintza jarri ditu sortu zenetik eta hainbat proiektutan murgildurik dagoen arren, argi du «auzoa bizirik mantendu» nahi duela.

Intxur auzo elkartetik gaineratu dutenez, bertako bizilagunen arteko harremanak «sendotzean» du bere funtsa, «baita kanpotik Aldaba ezagutzera etorri nahi duen guztiak atek izango ditu». Helburu horiek dituztela antolatu dute kultur asteburua.

Hitzaldi batekin hasiko dira eki-



Xabier Peñalberrek emango du Intxurreko kastroari buruzko hitzaldia. A. IMAZ

taldiak. Xabier Peñalber Aranzadiko kideak Intxur kastroari buruzko solasaldia emango du, 20:00etan. Etzi, Tolosako Landa Eremuko Emakumeen Diagnostika proiektatuko da, 20:00etan. Diagnostika hori orain hilabete Bedaion aurkeztu zen estreinako aldiz, parte hartu zuten emakumeen aurre-

an. Oraingoan, auzotar guztiak ikusteko aukera izango dute Aldaban. Proiektzioaren ondoren gaztain-jatea egingo dute. Igandean, eguraldia lagun izanez gero, 10:00etan elkartuko dira eta biharoko hitzaldiaren harira, ibilaldia egingo dute Intxurreko kastroari bisita eginaz.

Gaztetxearen urteurrena ospatzeko ekitaldien baitan, gaur mendi proiektzioa



Yosemite eskalatzeko dauden lekuei buruz izango da gaurko solasaldia. HITZA

Alegia » Etziko babarrun bazkarirako txartelak erosteko azken eguna da gaur; ohiko lekuetan daude salgai 10 eurotan.

ERREDAKZIOA

Alegiako Gaztetxearen XXII. urteurrenaren ospakizun ekitaldiek jarraipena izango dute gaurkoan. Ostiraleko garagardo festaren ondoren, mendi proiektzioa izango dute gaur. Hain zuzen, AEBeko Yosemite mendian egindako eskaladen inguruko izango da proiektzioa. 19:00etan hasiko da emanaldia Gaztetxean.

Bestalde, gaur da azken eguna etzi egingo den babarrun jaterako txartelak erosteko. Gaztetxean egingo dute bazkaria eta 10 euro balio ditu txartelak. Joan nahi duenak betiko lekuetan izango dira salgai. Bazkariaren ondoren munitxapelketa antolatu dute. Gauean Desordutan talde tolosarraren kontzertua entzuteko aukera izango da eta gero DJ festa izango dute.

Leitzaldean gaurtik aurrera telebista digitala izango dute soilik

Telebista » Bi ordu iraungo du Lurreko Telebista Digitalera igarotzeko prozesuak, hau da, 10:00etatik 12:00etara.

ERREDAKZIOA

Nafarroako Gobernuak azaldu duenez, gaurtik aurrera Lurreko Telebista Digitala (LTD) bakarrik ikusi ahalgo da Nafarroan, eta beraz, Leitzaldean ere. 10:00etan hasiko da prozesua eta 12:00etan bukatuko da. Gobernuak azaldu duenez, Nafarroa «prest dago» LTDra aldatzeko eta itzalketa analogikoa-

ren arazoak «urriak» izango direla zehaztu du.

Guztira 16 errepikagailu analogikok seinalea emateari utziko diote. Itzalketaren bigarren eta azken fasea da eta 230 udalerrri eta 540.000 herritarrei eragiten die. Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, telebista ikusteko arazoak dituztenek «antena profesionala jo dezatela» gomendatzen du. Gobernuaren webgunean profesional horien zerrenda bat dagoela gaineratu du eta informaziorako telefono zenbaki bat dagoela azaldu du, 948 010 110, itzalketan zehar izan daitezkeen dudak argitzeke.

Trapezio eta aire-oihal ikastaroak Asvinenean

Aduna » Maider Yabar eta Asvin Colorado izango dira irakasleak; haurrentzako aireko akrobazia ikastaroa ere antolatu dute.



Trapezioa ikasi ahalgo da. HITZA

ERREDAKZIOA

Asvinenea arte eszenikoen laborategian hiru ikastaro antolatu dituzte hilaren bukaerarako. Trapezioa eta aire-oihalen inguruko ikastaroak izango dira.

Trapezio arruntaren ikastaro trinkoa hilaren 28, 29 eta 30 eta urtarrilaren 4, 5 eta 6an egingo da. 16:00etatik 18:00etara izango da. Hiru egunetan joaten denak 50 euro ordaindu beharko ditu. Sei ordu egiten dituenak 80 euro ordaindu beharko ditu. Asvin Colorado izango da irakaslea. Harremanetarako zenbakia 667 22 32 36 da.

Egun berdinetan, aire-oihalei buruzko ikastaro trinkoa izango

da. Orduetia 18:30etik 20:30era izango da eta hiru eguneko saioa 50 euro eta sei eguneko saioa 80 euro izango dira. Maider Yabar da iraskalea eta harremanetarako zenbakia 675 52 80 29 da.

Irakasle berak 5 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikastaroa emango du, aireko akrobaziei buruzkoa. Hilaren 28, 29 eta 30ean izango da saioa, 11:00etatik 13:00etara, eta 50 euroko kostua izango du.

Laburrak

Finalerako autobusa antolatu du bertso taldeak

ALEGIA » Zazpi Astoren Gainean bertso taldeak autobusa antolatu du igandean Barakaldoko BEC erakusazokan egingo den Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako finalerako. Autobusa 08:30ean aterako da Bideberrieta kaleko autobus geltokitik, hau da, Gaztetxearen azpian dagoen geltokitik. Itzulera, berriz, finala bukatu ondoren izango da.

Haurrentzako antzerkia eta Santa Luzia afaria

AMEZKETA » Haurrentzako antzerkia izango da bihar, 19:00etan, Larunarri pilotalekuan. Galtzaundik babestuta, Ane Monna, Oskola eta Karramarroi tadeak *Ino, Ino, badator Bonbardino* antzezlanaren emango dute. Bestalde, jubilatuek antolatuta, igandean, Santa Luzia eguna, jostunen afaria egingo dute Errekalde tabernan. Nahi duenak joan ahalgo du, 20:00etan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

70 pertsonak hartu dute parte 18. Frontenis Txapelketan

Berrobi » «Giro ona» izan dela nabarmendu dute antolatzaileek eta baita finaleko partidak «oso onak» izan zirela.

ERREDAKZIOA

Bukatu da urtero Begi Gorri elkarteak antolatzen duen Berrobiko 18. Jon Ander Izagirre Frontenis Txapelketa eta 70 pertsona inguruk hartu dute parte.

Mutiletan bi maila izan dira, bikoteka eta banaka, baina nesketan bikoteka bakarrik aritu dira. Mutiletan binakako mailan Ekaitz Artolak eta Iñigo Artolak irabazi zieten 30-23 Julen Izagirre eta Arkaiz Aurrkiari. Banaka Nikolas Artolak irabazi zion 30-13 Mikel

Goitiari. Neskei dagokionez Mireia Lezea eta Arantzazu Rodas izan ziren garaile Oihane Bergarari eta Leire Jauregiri 30-20 irabazi ondoren.

Hiru astebukaeratan zehar

Finala pasa den larunbatean izan zen, hilak 5, baina txapelketa hiru astebukaeratan zehar jokatu dute. Antolatzaileek «giro ona» izan dela argitu dute, baina batez ere finaleko hiru partidak nabarmendu dituzte. Izan ere, jende asko bildu zen eta partaideek «oso jokaldi ederrak» eskaini zituzten.

Aipatu bezala aurtengoa 18. edizioa izan da, urteak igaro dira txapelketa lehen aldiz antolatu zutenetik eta jada lehiaketa herrikoia baino eskualdeko mugak gainditu dituen urteroko hitzordua da.



70 pertsona aritu dira txapelketan, irudian finalista guztiak ikus daitezke. HITZA



Irabazleak: Nikolas Artola, Ekaitz eta Iñigo Artola, eta Mireia Lezea eta Arantzazu Rodas. HITZA

2-3 irabazi du Lauburuk Orkoien

Ibarra » Hiru puntuak etxeratu zituen areto-futboleko taldeak pasa den larunbatean Nafarroan izandako partidaren.

ERREDAKZIOA

Partida bitxia izan zuten Ibarra Lauburu taldeko jokalariek pasa den asteburuan Orkoien (Nafarroa). Izan ere, partidaren emaitza azken hamar minutuetan erabaki zen. Ibarrek irabazi zuten azkenean 2-3ko emaitzarekin. Lehen gola, hala ere, nafarrek sartu zuten bigarren zatian.

Partida bukatzeko 20 segundo falta zirela erabaki zen emaitza, 2-2ko emaitza zegoen markagailuan

eta orduan lortu zuen Lauburuk garaipena.

Jon Garmendiak, Unai Labacak eta Loitzun Sanzek sartu zituzten Ibarra hiru golak.

Sailkapen orokorreko bigarren postuan

Hiru puntu lortu zituen, hortaz, Lauburuk Orkoien eta sailkapeneko bigarren lekuan dago, Zierbena (Bizkaia) taldetik hiru puntu-ra.

Joseba Balerdi, Unai Labaca, Jon Garmendia, Cristian Davila eta Victor Silva izan ziren kantxaratu ziren lehen bost jokalariek eta ondoren Iñigo Arrospeiek, Aitzol Oyarbidek, Loitzun Sanzek eta Ander Esnaola Txipik ere izan zuten jokatzeko aukera.

Aizkardik Zاراia mendigunea joateko irteera antolatu du

Villabona » Zirkulu-formako ibilaldia egingo dute; Araotzetik aterata 6 ordu eta erdiko ibilaldia egingo dute.

ERREDAKZIOA

Iganderako, hilak 13, Deba Garaiko Zاراia mendigunera joateko irteera antolatu du Villabonako Aizkardi Mendi Elkarrekin.

Zirkulu-formako ibilaldia egingo dutela argitu dute antolatzaileek eta gaur da izena emateko azken eguna. Horretarako 649 717 182 telefono zenbakira deitu behar da 20:00etatik 22:00etara. Aizkardi Elkartean bertan ere eman daitezke izena.



07:00etan irteera dira Olaederratik zirkulu-formako ibilaldia egingo. HITZA

Irteera 07:00etan izango da Olaederra kiroldegitik eta hortik Araotzera joango dira, ondoren Orkatzategi igo eta Kurutzberri eta

Arangurenko gailurrak ere pasako dituzte. Degurixa eta Andarotzera pasata itzuliko dira berriz ere Araotzera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak urteurrenak eskertzak



17°
7°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 14°
HOTZENA 3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aizondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoeta/leizor@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leizor: 687 410 034. ibarra/leizor@tolosaldeko hitza.info.
Leizor/Leizor: 687 410 034. leizor/leizor@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Aireko akrobazia ikastaroa 5 eta 14 urte artekoentzat Maider Yabar irakaslearekin abenduaren 28tik 30era, 11:00etatik 13:00etara, 50 euroan. Informazioa eta izen-ematea, 667 223236 zenbakian edo maidertxo@hotmail.com helbidean.

■ **Berastegi.** Elkartasun Azoka abenduaren 12tik 18ra: arropa, jostailuak, liburuak, altzariak... jasoko dituzte Muñagorri eskolan azokan salgai jartzeko.

■ **Irura.** Herriko guraso guztientzako bilera udaletxean 19:00etan Eguberri buruz. Laguntzeko prest egon eta bilerara joan ezin dutenek, izena eman dezakete udaletxean edo liburategian.

■ **Tolosa.** *Emakumeak eta migrazioak* komiki lehiaketa. Lanak hilaren 30erako entregatu behar dira Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio Sailean (943 654501).

■ **Tolosaldea.** Igandean BECera Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa antolatu du Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan 9 eurotan (ez bazkideek, 12).

■ **Tolosaldea.** 10.000 kilo Sahararen alde kanpaina. Jakiak ondorengo lekuetan bilduko dituzte: Tolosako Maxi Eroski, Eroski Center, BM eta Eko supermerkatuetan eta Santa Maria kalean dagoen Txolarte elkartearen 13:00etatik 15:30era; Villabonako BM, Todo Todo eta Eroskin; eskualdeko udaletxe eta eskola guztietan.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor zinemaren abendu-



Musika Eskolaren Eguberri doinuak

TOLOSA ● Abenduaren 12an, larunbata, 19:00etan hasita, Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolako ikasleek, urtero bezala, Eguberrietako Kontzertua eskainiko dute Amarozen, Koldo Tarragona eta Miguel Angel Moreno irakasleek zuzenduta. Kontzertuan 70 ikasleek parte hartuko dute, ezagutzera emateko musika eskolan ikasia. Besteak beste, musikagile hauen obrak

interpretatuko dituzte: F.J. Haydn, Lennon McCartney, A.Ticheho eta V. Monti. Kontzertuak bi atal izango ditu. Lehenbiziko zatian pianoa eta akordeoia ariko dira, eta bigarren goan, berriz, flauta, klarinete, saxofoi, bonbardino, tuba eta tronboiak. Sarrera libre izango da eta Amarozen Auzo Elkarteak musika zaleei dei egiten die kontzertua entzuterara agertzeko. HITZA

ko zinema abono salmenta: 12 filma 10 edo 12 eurotan (*Luna Nueva, Sin nombre, 2012, Julie-Julia, Avatar, Celda 211, Siempre a tu lado, Tres monos, Solo se vive una vez*).

■ **Tolosa.** Nuri Bilge Ceylanen *Tres monos* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Tolosaldeko Immigrazio zerbitzuak antolatutako: *Emakumeak eta Migrazioa*, Kultur Etxean 18:00etan.

Kirola

■ **Tolosa.** Hilaren 20rako Ormaiztegi-Azkoitia mendi irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak, Izazpe eta Samiño mendiak igoz, eta ondoren babarrun jatea. Izen-ematea, elkartearen (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

■ **Zizurkil.** Kirok Astea: *Norte salado, sur dulce* Mikel Bringas, Rosa Lizaso eta seme-alaben 2.000 kilometroko bidaiaz proiektzioa Kultur Etxean 19:30etan.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ignacio Garcíaren margolanak ikusgai ltaie tabernan.

■ **Tolosa.** *Tolosarra angularra* Iñaki Elolaren argazki erakusketa Beti Alai tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzieren erantzunik.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak



Parekotasun
asko ditugu,
Giza Eskubideetatik
hasita

Abenduaren 10a
Giza Eskubideen
Nazioarteko Eguna

